

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Gernika-Lumoko Udala**

**Ayuntamiento de Gernika-Lumo**

**2008**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

<b>I. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>8</b>
II.1 UDALA .....	8
II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	10
II.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK .....	11
II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	12
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI</b>	
<b>BURUZKO IRIZPENAK</b> .....	<b>13</b>
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA .....	13
III.2 LANGILERIA .....	13
III.3 DIRU-LAGUNTZAK .....	14
III.4 KONTRATAZIOA .....	14
III.5 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK .....	16
<b>IV. FINANTZEN ANALISIA</b> .....	<b>18</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>22</b>
V.1 UDALA .....	22
V.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK .....	25



<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>29</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>30</b>
II.1 AYUNTAMIENTO .....	30
II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	30
II.1.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	32
II.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS LOCALES .....	33
II.2.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	33
II.2.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	34
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>35</b>
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD .....	35
III.2 PERSONAL .....	35
III.3 SUBVENCIONES .....	36
III.4 CONTRATACIÓN .....	36
III.5 ORGANISMOS AUTÓNOMOS LOCALES .....	38
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO</b> .....	<b>40</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES</b> .....	<b>44</b>
V.1 AYUNTAMIENTO .....	44
V.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS LOCALES .....	47



## ERANSKINAK / ANEXOS

A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .....	51
A.2 Presupuesto y sus modificaciones .....	52
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	55
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	56
A.5 Enajenación de inversiones reales .....	57
A.6 Gastos de personal .....	57
A.7 Compras de bienes corrientes y servicios.....	59
A.8 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas .....	60
A.9 Inversiones reales e inmovilizado.....	61
A.10 Pasivos financieros .....	62
A.11 Deudores presupuestarios.....	63
A.12 Deudores y acreedores extrapresupuestarios.....	63
A.13 Tesorería.....	64
A.14 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	64
A.15 Clasificación funcional del gasto .....	65
A.16 Contratación .....	65
A.17 Organismos Autónomos Locales .....	67
A.17.1 Ingresos por transferencias y subvenciones corrientes.....	67
A.17.2 Personal.....	67
A.17.3 Contratación .....	68
A.18 Información adicional .....	69
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>73</b>
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>79</b>



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Gernika-Lumoko Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoen 2008ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Finantzarioa: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua, memoria eta aurrekontuen likidazioa.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.

Gernika-Lumoko udalerrak 16.255 biztanle ditu 2008ko urtarrilaren 1eko udal eroldaren arabera eta bertako egiturari, Udalaz gain, Kultur Etxea, Kirolen Udal Patronatua, Lanbide Ekimenetarako Zentroa eta Aita Luis Villasante Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoak barne-hartzen ditu. Gainera, Busturialdeako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko de Busturialdeako Uren Partzuergoko kide da.



## II. IRITZIA

### II.1 UDALA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

##### LANGILERIA (Ikus A.6)

1. Udalak aldi baterako lan kontratu jarraituak egin dizkie 7 langileri, 1999az geroztik kasurik antzinakoenean, eta 2007ko otsailaz geroztik kasurik berrienerako. Lan-harremanaren iraupenak eta zerbitzuen izaera iraunkorrak kontratu horiek mugagabe bihurtzea ekarri du, alkatetzaren 2009ko urtarrileko eta 2010eko otsaileko dekretu bitartez. Ordea, funtzio publikoaren arautegiak (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua-EFPL) agintzen du langileen beharrezan iraunkorrak Lanpostuen Zerrendan jaso behar direla, gerora dagokion enplegu publikoaren eskaintza deitzeko. Kasu hauetan guztietan, lanpostu horiek betetzeko erabili diren hautaketa prozedurek publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu dituzte.

##### DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.8)

2. Udalak 2008an hainbat laguntza eman zizkien modu banakakoan irabazi asmorik gabeko kultur, kirol eta gizarte ekintzako 43 erakunderi 218 mila euroko zenbatekoarekin (azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 8.3 artikulua).

##### KONTRATAZIOA

3. Txaporta II industri gunea urbanizatzeko obren kontratua 2.075 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2006ko abuztuan; ordea, kopurua aintzat hartuta (aurrekontuko baliabide arrunten % 10a baino altuagoa) horretarako eskumena zuen atala Udalbatza zen (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua) (ikus A.16).
4. Lorategiak zaindu eta industri hondakinak jasotzeko zerbitzuak 1998 eta 1993an esleitu ziren eta haien indarraldia 2004 eta 1994ko urteetan amaitu da, hurrenez hurren; honenbestez, horien esleipena publizitate eta lehia printzipioetara meneratutako prozesu berri baten bidez gauzatu behar zatekeen. 2008an zerbitzu hauen kostua, hurrenez hurren, 233 eta 115 mila eurokoa izan zen (ikus a.16).
5. OTA zerbitzua ezarri eta kudeatzeko kontratuan hainbat aldaketa gauzatu dira (balioetsitako kostua % 40 gehitzea eta kudeatutako plaza kopurua % 164 gehitzea); Nahiz eta aldaketa horiek araei jarraituz izapidetu ziren, kopurua aintzat hartuta, kontratazio arauetako lehiaketa printzipioak urratzen dituzte, desitxuratu egiten baitute bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren bolumen ekonomikoa (ikus A.16).
6. Osoko bilkurak 2004an sozietate pribatu batekin hirigintza hitzarmen bat gauzatzea onetsi zuen, bi exekuzio unitate eta sistema orokor bat kudeatu eta urbanizatzeko eta hitzarmen horri bi jarduera osagarri gehitu zizkion inguruko exekuzio unitateetan. Ereku horretarako aurreikusitako jardute-sistemak, kooperazioak, administrazioa



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

behartzen du urbanizazio lanak Hirigintzaren Kudeaketarako Erregelamendua onesten duen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren 186.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki exekutatzera. Lanen azken kostua 657 mila eurokoa izan da (2008ko ekitaldian exekuzioak 155 mila euro egin ditu) eta administrazioko kontratazioan buru egiten duten publizitate eta lehia printzipioak saihestuta gauzatu da (ikus A.16).

7. Erosketa txiki modura izapidetutako erosketetan 148 mila euro egin duten bi obra azaleratu dira, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak, bai kopuruagatik, bai data beretan hornitzaile berari ezaugarri antzeko edo bereko beste batzuk egiteagatik.

Epaitegi honen ustetan, Gernika-Lumoko Udalak, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2008ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



## II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalak Itunpeko zergetan, Udalkutxan, parte hartzeagatik kitatutako eskubideak 2008ko ekitaldiaren azken kitapenaren konturako ordainketei eta 2007ko ekitaldiko likidazio positiboari dagozkie; erregistratzeko dago, alabaina, 2008ko ekitaldiaren likidazio negatiboa, 1.153 mila eurokoa. BFaren 2009ko urtarrilaren 24ko Gobernu Batzordeak erabakitakoari jarraiki, kopuru horren itzulketa bederatzirenetan egingo da 2009ko apiriletik aurrera eta Udalkutxaren konturako dagozkion ordainketak kargututa konpentsatuko dira.

1. Udalak ez du gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik, egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren saldoa udalaren jabetzako 2008ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideekin bat datorren ondorioztatzen utziko duena. Honez gainera, Udalak balantzearen aktiboan guztien erabilerarako emandako inbertsioak barne hartzen ditu, saldo zorduna duten fondo propioen idazpuruan barne hartu beharrean eta ez du gastua ibilgetu material eta ezmaterialaren amortizazio kontzeptuan erregistratzen.
2. Hona hemen 2008ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Udalaren Fondo Propioak eragiten dituzten doiketak:

Kontzeptua	Mila euro			
	Aurrekontukoa Diruz. geldikina	Ondarekoa		
		Aktiboa	Pasiboa	Fdo. Propioak
<b>08.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak</b>				
A.3 2008ko OHZren likidazioa .....	223	223	-	223
A.3 JEZ likidazioak eta kobratzeko dagoena, 2008.....	83	83	-	83
A.3 Zabor tasa 2008ko 3. eta 4. hiruilekoa .....	438	438	-	438
A.4 Kapital diru-laguntzen finantzaketako desbideraketak .....	143	143	-	143
A.5 Santa Luziako jabeen ekarpenak.....	1.045	1.045	-	1.045
<b>Sortu gabeko eta 08.12.31n erregistratutako eskubideak</b>				
A.5 Bekoibarrako aparkalekuko plazen emakida .....	(1.851)	(1.851)	-	(1.851)
<b>08.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak</b>				
A.7 2009an erregistratutako 2008ko fakturak-erosketak .....	(294)	-	294	(294)
A.9 2009an erregistratutako 2008ko fakturak-inbertsioak .....	(431)	-	431	(431)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(644)</b>	<b>81</b>	<b>725</b>	<b>(644)</b>

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2. paragrafoetan azaleratutako salbuespenak alde batera, Gernika-Lumoko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2008ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2008ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian eragiketen emaitzak erakusten ditu.

## II.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

### II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

#### LANGILERIA (Ikus A.17.2)

1. Kultur Etxea: Udalak aldi baterako lan kontratu jarraituak egin dizkie 10 langileri, 1997az geroztik kasurik antzinakoenean, eta 2007ko otsailaz geroztik kasurik berrienerako. Lan-harremanaren iraupenak eta zerbitzuen izaera iraunkorrak kontratu horiek mugagabe bihurtzea ekarri du, Erakunde Autonomoko Lehendakariaren 2010eko otsaileko ebazpen bitartez. Ordea, funtzio publikoaren arautegiak (EFPLren 23. art.) agintzen du langileen beharrizan iraunkorrak Lanpostuen Zerrendan jaso behar direla, gerora dagokion enplegu publikoaren eskaintza deitzeko.
2. Ekimen Profesionalen Zentroa-EPZ: Udalak aldi baterako lan kontratu jarraituak egin dizkie 2 langileri, 2001 eta 2003az geroztik. Beste bi kasutan (2006 eta 2007az geroztik) obra kontratua Behargintza programari lotzen zaio, 2010era arteko iraupena aurreikusia duena. Lan harremanaren iraupen eta prestazioen izaera iraunkorraren ondorioz 2010eko martxoan EPZk kontratuak mugagabe bihurtzeko erabakia hartu du. Ordea, funtzio publikoaren arautegiak (EFPLren 23. art.) agintzen du langileen beharrizan iraunkorrak Lanpostuen Zerrendan jaso behar direla, gerora dagokion enplegu publikoaren eskaintza deitzeko.

#### KONTRATAZIOA (ikus A.17.3)

3. Kultur Etxea: Garbiketa zerbitzua 2006an Udalean zerbitzuaren esleipen hartzaile zenari esleitu zitzaion sei hilabeterako, batere publizitate eta lehiarik bideratu gabe eta esleipen hartzaile zen enpresa ordezkatzeko beharra arrazoi hartuta. Erakunde Autonomoak ez du gerora zerbitzu hau lehian atera, publizitate eta lehia printzipioak urratuz; zerbitzuak 2008an 52 mila euroko kostua izan du.
4. Kiroletako Udal Patronatua. instalakuntzak garbitzeko kontratuak (236 mila euro 2008an) eta harrera, sarbide-kontrol eta sorospeneoak (115 mila euro 2008an), indarraldia 2006 eta 2003an amaitu zuten, hurrenez hurren; ordea, Erakunde Autonomoak ez ditu zerbitzu horiek lehian atera eta honenbestez, publizitate eta lehia printzipioak urratu ditu (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 198. art., Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Testu Bateratua-HAKLTB).
5. Kiroletako Udal Patronatua: instalakuntzen erabiltzaileentzako hainbat ikastaro antolatu ziren (mantentze kirola, erritmikoa, aerobik, e.a.) eta elkarte batekin izenpetutako bi hitzarmenen bidez esleitu zen, 2008an guztira 113 mila euroko zenbatekoa eginez. Elkarte administrazioko kontratazioan buru egiten duten publizitate eta lehia printzipioak ezarri gabe gauzatu zen.



Epaitegi honen ustetan, Kultur Etxea, Ekimen Profesionaletarako Zentroa, Kirolaren Udal Patronatua eta Aita Luis Villasante Udal Euskaltegia Toki Erakunde Autonomoek, letik 5era bitarteko paragrafoetan xehatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2008ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

## II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Erakunde Autonomoek ez dute 2008ko abenduaren 31n gaurkotutako ondasun eta eskubide zerrendarik, Egoeraren Balantzean jasotako ibilgetuko zifra (5.955 mila euroko atxikitako zenbatekoduna) data horretako ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datorren ondorioztatzen utziko duena. Halaber, Erakunde Autonomoek ez dute inongo gasturik erregistratzen ibilgetu material eta ezmaterialaren amortizazio kontzeptuan.
2. Hona hemen 2008ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinak, data horretan itxitako Egoera Balantzeak eta Erakunde Autonomoen Fondo Propioak eragiten dituzten doiketak:

Kontzeptua	Mila euro			
	Aurrekontukoa Diruz. Geldikina	Ondarekoa		
		Aktiboa	Pasiboa	Fdo Propioak
Musika eskolako 2008ko kuotak .....	23	23	-	23
A.17.1 EAren 2008ko diru-laguntza musika eskolari .....	284	284	-	284
A.17.3 Erregis. gabeko gtu.ak:Lizeoa kudeatz. zerb. osag.(4. hiruhil.) .....	(21)	-	21	(21)
<b>KULTUR ETXEA GUZTIRA</b>	<b>286</b>	<b>307</b>	<b>21</b>	<b>286</b>
A.17.3 Erregistr. gabeko gtu.ak: garbik. eta harrera (azaroa eta ab.).....	(52)	-	52	(52)
<b>KIROLAREN UDAL PATRONATUA GUZTIRA</b>	<b>(52)</b>	<b>-</b>	<b>52</b>	<b>(52)</b>

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan azaleratutako akatsak salbuetsita, Kultur Etxea, Ekimen Profesionaletarako Zentroa, Kirolaren Udal Patronatua eta Aita Luis Villasante Udal Euskaltegia Toki Erakundeen Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan 2008ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen eta 2008ko abenduaren 31ko finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzak erakusten ditu.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2008ko ekitaldirako aurrekontua hasiera batean 2008ko otsailaren 6ko Osokoak onetsi zuen; ordea, arautegiak (Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15.2 artikulua) behin-betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- Kontularitzako erregistroari dagokionez, hona hemen azaleratu diren akatsak:
  - Sartzeko erraztasuna hobetzeko, igogailuak instalatzeko eta etxe-aurreak zaharberritzeko emandako diru-laguntzek 139 mila euroko gastua eragin dute 2008an; horiek guztiak “Transferentzia arruntak” gastuen kapituluan erregistratu dira, baina duten izaeraren arabera, “Kapitalezko transferentziak” kapituluan erregistratu behar ziratekeen”.
  - Talde politikoei egindako diru-izendapenak, 32 mila eurokoak, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak” kapituluan kontuetaratu dira; aldiz, haien izaera aintzat hartuta, “Transferentzia arruntak” kapituluan erregistratu behar ziratekeen.
  - Aurreko ekitaldietan bildutako sarrerren itzulketa, Izartu I programatik datozenak eta 398 mila euroko zenbatekoa egiten dutenak, “Transferentzia arruntak” gastuen kapituluan kontuetaratu da; ordea, sarrera txiki modura” “Kapitalezko Transferentziak” kapituluan erregistratu behar zatekeen.
  - Izartu II programatik eratorritako sarrerak, 343 mila eurokoak, sarrera arrunt modura kontuetaratu dira, inbertsioak finantzatzen ari direnean.

#### III.2 LANGILERIA

- 2008ko irailean onetsitako LZk funtzionarioentzat gordetako 7 lanpostu barne hartzen zituen eta horietan ez da ez lanpostu-mailako osagarria, ez berariazko osagarria adierazten (EFPLren 15. art.), plazak azken balorazioa eta gero sortutakoak baitira.
- Udalbatzak 2007ko uztailaren 13ko erabaki bitartez ordainsariak ezarri zituen eta alkateari dedikazio eskusiboa ematea eta udalbatzako bi zinegotziri dedikazio partziala ematea erabaki zuen; be, gainerako udalkideen zenbatekoak ere onetsi ziren. Erabaki hau Bizkaiko Agintaritza Aldizkarian argitaratu behar zatekeen (Toki Araubidearen Oinarriak Erregulatzen dituen Legearen 75.5 art. /TAOEL).

### III.3 DIRU-LAGUNTZAK

- Udalak laguntzak eman zizkien udalerriko Merkatarien Elkarteari, Gernikako Hirugarren Adineko Zentroari, Euskal Fondoa Elkarteari (kideen kuota) eta AEK Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinadorari (berbalaguna programa), hurrenez hurren, 24, 25, 3 eta 14 mila euroko zenbatekodunak, modu zuzenean; ordea, duten izaera errepikaria eta berariazkoa aintzat hartuta, egokiagoa zatekeen aurrekontuan diru-laguntza izendun modura jasotzea.
- Udalak ez du BAOn argitaratu elkarlehiaren sistema bidez emandako diru-laguntzen emakida ebazpenaren laburpena, zeinetan, banaka hartutako diru-kopuruek 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen duten; bertan, edukia osorik zein tokitan dagoen ikusgai adierazi behar luke, Diru-laguntzen Lege Orokorren (DLO) 18.2 artikulua agintzen duen legez.
- Udalak 2008ko urtean 97 mila euroko diru-laguntzak eman zizkien 9 onuraduni garapenaren kooperaziorako; ordea, argitaraldi mugatua egin zuen (udalaren iragarki-ohola eta web-orria) eta oinarri-arauetan, balorazioa egiteko irizpide orokorrak jasotzen ziren, horiek balio-neurtu gabe eta emandako laguntza banakakoak zenbatesten dituen txostenean ere jaso gabe; horrek guztiak DLOren 8.3 artikulua urratzen du.

### III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizatutako urtean indarrean zeuden 12 kontratu nagusienak aztertzean, honako alderdi hauek azalera dira (ikus A.16):

- **Administrazio klausula partikularren pleguak**

15.015 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 2 kontraturen pleguek merketze-ehuneko jakin batetik aurrera eskaintza merkeenak zigortzen dituzten formula aritmetikoak besarkatzen dituzte. Kontratazioaren arautegiak (APKLTBren 86.3 art.) mugak jartzeko bide ematen du eta muga horiek gaindituz gero eskaintza bideragarria dela egiaztatu behar da, baina, betiere banan-banako azterketa eskatzen du (1 eta 6 zk.ko espedienteak).

417 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako kontratu baten pleguek (2. espedientea) esleipen irizpide modura enpresa kalitateko egiaztagirien esleipena barne hartzen zuten. Lehian parte hartzeko lizitatzailen betekizunak aldeztetik erabaki behar dira eta eskaintzak balioztatzeke unean, kontratazio-gai den obra edo zerbitzuarekin lotutako alderdiak soilik hartuko dira aintzat (APKLTBren 86.1 art.).

TAO zerbitzua ezarri eta gerora kudeatzeko kontratuaren pleguak (5. espedientea) isilbidez urtero kontratua luzatzeko aukera ematen du; ordea, luzapen horiek berariazkoak behar dute izan (APKLTBren 67. art.).

- **Proiektuaren birplanteaketa**

Guztira 14.997 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 6 obra kontratutan ez da proiektuaren birplanteaketa egin, APKLTBren 129. artikuluan eta SPKLren 110. artikuluan agintzen den moduan (7tik 12ra bitarteko espedienteak).

- **Esleipena**

12.922 mila euroko zenbatekoa egiten duten 5 kontraturen eskaintzak aztertzen dituen txosten teknikoan, pleguetan ezarritako irizpide objektiboak azpi-irizpideetan garatu dira, pleguan zehaztu behar ziratekeenak (7 eta 9tik 12ra bitarteko espedienteak).

30.012 mila euroko 8 esleipenetan, aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak irizpide eta azpi-irizpide bakoitzari emandako puntuazioak xehatzen ditu, baina ez ditu emandako puntuazioak justifikatzen (1 eta 6tik 12rako espedienteak).

3 espedientetan arautegiak finkatutako epeekiko atzerapenak sumatu dira. Bi kasutan (2 eta 5. espedienteak) esleipena proposamenen irekieratik 3 hilabetetik gorako epea igarota gauzatu da (APKLTBren 89. art.) eta bestean (8. espedienteak) kontratua formalizatzea atzeratu da (APKLTBren 54. art.).

Guztira 29.142 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 8 kontratutan, atzerapenak izan ziren esleipen ebazpena argitaratzean edo ez zitzaien publizitaterik eman (APKLTBren 93.2 art. edo Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 138 art.) (1, 5etik 8rako eta 10etik 12rako espedienteak).

Obra kontratu batean (8. espedienteak), esleipen hartzaileak ez zuen zerga eta gizarte obligazioetan eguneratua zegoela egiaztatu (APKLTBren 79. art.).

- **Exekuzioa eta harrera**

Udalak 12.373 euroan esleitutako 4 obra kontratutan ez da zuinetaren egiaztapen akta gauzatu (APKLTBren 142. art.), exekuzio epeari hasiera noiz ematen zaion zehazten duena (7 eta 9tik 11rako espedienteak). }

Guztira 14.270 mila euroko zenbatekoarekin esleitu diren 4 obra kontratutan, exekuzioa horien azken gauzatze epeaz haratago luzatu da eta ez da epe horren gaineko inongo luzapenik gauzatu (APKLTBren 95. art. eta SPKLren 197. art.) (7tik 9ra bitarteko esp. eta 12. esp.).

Udalak 11.057 euroan esleitutako bi obra kontratutan, ez da obren harrera akta gauzatu, APKLTBren 147 artikulua agintzen duen moduan (7 eta 11. espedienteak).

Guztira 3.773 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako 4 obra kontratutan, kontratazio atalak obrak hartu edo amaitu ondoko azken ziurtagiria epez kanpo onetsi du (APKLTBren 147. art. eta SPKLren 218. art.) (8, 9, 11 eta 12 espedienteak).



#### - Erosketa txikien analisisia

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketetan 69 mila euroko bi zerbitzuren kontratazioa azaleratu da, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak, bai kopuruagatik, bai data beretan hornitzaile berari ezaugarri antzeko edo bereko beste batzuk kontratatu izateagatik.

### III.5 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

#### Diru-sarrerak

- Kiroletako Udal Patronatua. Zuzendaritza Batzordeak 2008ko irailaren 3an hartutako erabakian, 2008-2009 ikasturteko kirol jardueren prezio publikoak gaurkotu zituen (76 mila euroko sarrerak 2008an); erabaki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar zatekeen (Bizkaiko Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. art.).

#### Langileria

- Alkatetzaren 2008ko abenduaren 29ko Dekretu bidez onetsi zen Enplegurako Eskaintza Publikoak ez ditu ekitaldian aurrekontu-izendapena izan duten Toki Erakunde Autonomoetako 8 lanpostu hutsak barne hartu (4 Kultur Etxean; 1 Udal Euskaltegian; 2 Lanbide Ekimenetarako Zentroan eta 1 Kirolaren Udal Patronatuan); horrek guztiak EFPLaren 23. art. urratzen du.
- Kultur Etxea: LZk ez du liburutegiko administrari laguntzaile postu bat barne hartzen eta egiteko horiek udaleko funtzionario batek betetzen ditu 1996az geroztik (EFPLren 14.1 art.).
- Obra kontratu jarraituak dituzten langileen arazoak erakusten du -iritziaren atalean aipatu dena- erakunde autonomoek kontratazio mota hau arautzeko beharra dagoela; behar bada, bajak edo lanpostu hutsak betetzeko ez diren kontratuetan, aldez aurreko txostena egiteko eskakizuna ezarri ahal izango da.

#### Diru-laguntzak

- Kultur Etxea: Ohiko jarduera garatzeko elkarteei diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarri-arautzaileak (62 mila euro 28 erakunderi), ez ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu (DLO); ordea, banakako jakinarazpena egin zitzaien udalerrian egoitza zuten elkarte guztiei. Oinarrietan funtsak banatzeko irizpideak zerrendatzen dira, baina ez da horien balioa zehazten (DLOren 17.3 art.). Halaber, ez zaie onuradunei zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan eguneratuta daudela egiaztatzeko eskatzen (DLOren 14. art.). Eta azkenik, ez da BAOn argitara eman emakidaren ebazpena (DLOren 18.2 art.).
- Kiroletako Udal Patronatua. 144 mila euroko diru-laguntzak eman zizkien udaleko kirol elkarteei (23 elkarte); horietatik 66 mila euro Zuzendaritza Batzordeak onetsitako baremoen arabera banatu zituen eta gainerakoa, 78 mila euro, jarduera zehaztetarako erabili zuen, kasu bakoitzaren zenbatekoa zehazteko aurrez ezarritako irizpiderik batere

izan gabe. Baremo jakin bati lotutako laguntzei dagokienez, ezarriko ziren irizpideen berri emateko banakako jakinarazpena egin zitzaien erakunde guztiei; ordea, ez zen BAOn argitara eman (DLoren 9.3 art.). Gainera, deialdiak ez ditu laguntzen onuradun izateko betekizunak zehazten; ez eta, horiek justifikatzeko modua eta epeak ere (DLoren 17. art.). Halaber, ez zaie onuradunei zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan eguneratuta daudela egiaztatzen eskatzen (DLoren 14. art.). Eta azkenik, ez da BAOn argitara eman emakidaren ebazpena (DLoren 18.2 art.).

### **Kontratazioa (ikus A.17.3)**

- Kultur Etxea: Lizeo Antzokia eta Elai-Alai aretoa kudeatzeko emakida kontratuan, 2004ko ekitaldian esleitu zenean, honako akats hauek azaleratu dira:
  - Administrazio Klausula Partikularren Pleguek, besteak beste, lehiatzaileen esperientzia eta kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, (APKLTBren 86.1 art.).
  - Ez zaio esleipen hartzaileari zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan eguneratua dagoelako egiaztagiririk eskatzen (APKLTBren 79.2 art.).
  
- Ekimen Profesionalen Zentroa: Eraikuntzako eskola-tailer bihurtzeko Madariene baserria zaharberrituko da; hori zaharberritzeko obren kontratuan, 2008an 418 mila euroko zenbatekoarekin esleitutakoan, honako akats hauek azaleratu dira:
  - Ez da BAOn esleipen-ebazpena argitaratu (APKLTBren 93.2 art.).
  - Obraren egikaritza bertan behera utzi zen, beharrezkoa baitzen linea elektrikoa aldatzea. Lanak bertan behera uztea ez zen formalizatu (APKLTBren 102. artikulua) eta finantzaketa ere ez zitzaion exekuzio erritmo egiazkoari egokitu (APKLTBren 14.3 art.).



#### IV. FINANTZEN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

	Milako eurotan			Euroak biztanleko				
	Urtea			Urtea			2007 Erref.	
	06(*)	07(*)	08	06	07	08	Bizk.	EAE
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.) .....	7.441	7.220	5.696	466	446	350	458	487
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	7.900	12.125	11.838	495	750	728	712	703
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	80	261	305	5	16	19	18	34
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>15.421</b>	<b>19.606</b>	<b>17.839</b>	<b>966</b>	<b>1.212</b>	<b>1.097</b>	<b>1.188</b>	<b>1.224</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	3.162	3.458	3.899	198	214	240	313	346
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	5.665	6.671	6.156	355	413	379	382	409
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	4.341	4.781	5.345	272	296	329	207	172
<b>B. Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>13.168</b>	<b>14.910</b>	<b>15.400</b>	<b>825</b>	<b>923</b>	<b>948</b>	<b>902</b>	<b>927</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>2.253</b>	<b>4.696</b>	<b>2.439</b>	<b>141</b>	<b>289</b>	<b>149</b>	<b>286</b>	<b>297</b>
- Finantza gastuak (kap. 3) .....	28	93	125	2	6	8	4	9
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>2.225</b>	<b>4.603</b>	<b>2.314</b>	<b>139</b>	<b>283</b>	<b>141</b>	<b>282</b>	<b>288</b>
- Maileguen amortizazioa (kap. 9) .....	155	211	267	10	13	16	11	28
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>2.070</b>	<b>4.392</b>	<b>2.047</b>	<b>129</b>	<b>270</b>	<b>125</b>	<b>271</b>	<b>260</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.) .....	13.625	7.443	4.173	854	460	257	161	134
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	-	300	731	-	19	45	104	102
- Inbertsio errealeak (6. kap.) .....	7.437	13.789	11.976	466	853	737	411	369
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	-	-	-	-	-	-	14	56
Kapitalezko eragiketen emaitza .....	6.188	(6.046)	(7.072)	388	(374)	(435)	(160)	(189)
<b>Eragiketa ez finantzazkoen emaitzak (1etik 7rako kap.) ..</b>	<b>8.413</b>	<b>(1.443)</b>	<b>(4.758)</b>	<b>527</b>	<b>(91)</b>	<b>(294)</b>	<b>122</b>	<b>99</b>
<b>Diruzaintzako geldikina .....</b>	<b>9.121</b>	<b>7.301</b>	<b>6.083</b>	<b>572</b>	<b>450</b>	<b>374</b>	<b>492</b>	<b>496</b>
<b>Zorpetzea 12.31n .....</b>	<b>1.950</b>	<b>1.739</b>	<b>4.972</b>	<b>122</b>	<b>108</b>	<b>306</b>	<b>86</b>	<b>267</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Iturria: EAEren Toki Entitateen Kontuen behin-behineko fiskalizazio txostena, 2007. "Bizk." erreferentzia, 10.001 eta 20.000 biztanle bitartean dituzten Bizkaiko eta EAEko udalen datuei dagozkie.



**Sarrera arruntak:** 2007an % 27 igo ziren eta % 9 murriztu, 2008an.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak** Sarrera hauek % 23 egin dute behera aztergai izan dugun aldian; azpimarratzekoa da 2008ko ekitaldian 2007koarekiko izan den % 21eko beheraldia. Hona hemen aldakuntza nagusiak:
  - Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zergak eragindako diru-sarrerak ekitaldi bakoitzean onesten diren proiektu eta lizentzien baitakoak dira eta honenbestez, sektorearen gorabeherei zuzenean lotuak daude; sektore honek jarduera handia izan zuen 2006 eta 2007an eta hurrenez hurren, 1.631 eta 1.151 mila euro sortu zituen; aldiz 2008an, 266 mila euroko diru-sarrerak eragin ditu.
  - Tasak eta bestelako sarrerak eragindako sarrerek % 3 egin dute behera 2007an eta % 22, berriz, 2008an. Beheraldi hau hirigintzako lizentziek eta zabor bilketa tasak eragindako sarrera txikiagoen ondorio da; izan ere, hirugarren hiruhilekoaren likidazioa erregistratzean atzeraldiak izan baitira.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** 2007an % 53 igo ziren eta % 2 murriztu, 2008an. Udalkutxa da osagairik garrantzitsuena eta horren likidazioak onartzen diren ekitaldian erregistratzen ditu udalak, zorpetzen diren urteari egotzi beharrean; honegatik, 2008ko likidazio negatiboak ez du ondoriorik eraiten 2009ra arte. Kontzeptu honen izenean hirurtekoan zorpetutako sarrerak 8.624, 9.763 eta 9.285 mila eurokoak izan dira. Honez gain, 2007ko ekitaldian aparteko diru-sarrerak jaso ziren EAE eta BFAtik, 280 eta 150 mila eurokoak, hurrenez hurren, Gernikako bonbardaketaren 70. urteurreneko oroitz-ekitaldietarako.

**Funtzionamendu gastuak:** % 17 egin dute gora 2006ko ekitaldiarekiko eta langile gastuak eta transferentzia arruntek eragindako gastua % 23 gehitu da; ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa, berriz, % 8 igo da. Urtearteko bariazioak % 13 eta % 3koak izan ziren 2007 eta 2008an, hurrenez hurren.

- **Langile gastuak:** Aztertutako aldian % 23 gehitu ziren, Enplegu Publikoen Eskaintzen deialdien ondoren funtzionario berriak laneratzearen ondorioz.
- **Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak:** 2007ko ekitaldian azpimarratzekoa da Gernikako bonbardaketaren 70 urteurrena oroitzeko egindako 934 mila euroko gastua.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** 2008an % 12 igo ziren eta % 10, 2007an. 2008ko ekitaldian aurreko ekitaldietan jasotako Izartu I programako sarreren itzuleratik eratorritako 398 milako gastuak euro gailentzen dira; baita, familiei laguntza berriak emateko deialdia ere, sarbideetan, igogailuen instalakuntzan eta fatxaden zaharberritzeetan hobekuntza lanak finantzatzeko emanak, 139 mila euroan. 2007ko ekitaldian azpimarratzekoa da Lanbide Ekimenetarako Zentroa Erakunde Autonomoari Madariene baserria zaharberritzeko lanak finantzatzeko emandako transferentzietan izan den igoera; lanak 418 mila euroan esleitu ziren eta EAEk eta Udalak, hurrenez hurren, % 29 eta % 71n finantzatu zituzten.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**Aurrezki gordina** Magnitude honek antzeko zifrak erakusten ditu 2006 eta 2008ko ekitaldietan; aldiz, berariaz gailentzen da 2007ko ekitaldia, aurreko eta hurrengo ekitaldiko aurrezkiarekiko, hurrenez hurren, 2 eta 1,92ko balioa baitu, ekitaldi horretan sarrera arruntek gora egin izanaren ondorioz. 2008an eskuratutako Aurrezki Gordinak bide eman du sarrera arrunten % 13ak kapitalezko eragiketak finantzatzeko.

**Kapitalezko eragiketen emaitza:** Aztergai izan dugun hirurtekoan hirigintzako jarduera garrantzitsuak egin ziren Txaporta eta Santa Luzian eta horren ondorioz, 2006an emaitza positiboa izatea ekarri dute (lursailen salmenta eta hirigintzako kuotak); ondoko ekitaldietan emaitza garbia ez da hainbestekoa izan. 2007an eta 2008an batez besteko inbertsio ahalegin garbia urteko 6.500 mila eurokoa izan da; orobat, 2008ko ekitaldian Astra lantegi zaharreko lursailen erosketa garrantzitsua egin zen (4.500 mila euro).

**Eragiketa ez finantzazkoen emaitzak:** 2007 eta 2008ko ekitaldietan, hurrenez hurren, 1.443 eta 4.758 mila euroko saldo negatiboa izan du, izan ere, inbertsioen zati bat Diruzaintza Geldikin bidez eta beste zorpetze batekin finantzatu baita.

**Zorpetzea:** 2008an 3.500 mila euroko mailegua kontratatu zen Astrako lursailak erosteko; horren bidez zorrak sarrera arrunten % 28aren pareta jo zuen 2008ko abenduaren 31n. Itzultzeko gaitasunaren terminoetan, zorraren bolumena 2,4 aldiz da 2008ko Aurrezki Garbia.

**Diruzaintza geldikina:** Magnitude honek % 17 egin du behera 2007ko ekitaldiarekiko. Gainera, Udalak ez du 2008ko ekitaldian Itunpeko zergetan izandako partaidetzak (Udalkutxa) eragindako likidazio negatiboa kontuetaratu, 1.153 mila eurokoa. Udalkutxaren eragina eta Epaitegi honek proposatutako doiketak aintzat hartzen baditugu (644 mila euro), 2008ko ekitaldian Diruzaintza Geldikinaren murrizketa 2007ko ekitaldiarekiko % 49koa da.

**Biztanleko ratioak-beste udal batzuekiko alderaketa:** Informazio modura, 10.001 eta 20.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Bizkaia eta EAEko udalen batez bestekoaren 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu ditugu (eskuragarri dauden azken datuak). Udalaren datuekiko alderaketak egin ahal izateko, gogoan hartu behar dira zerbitzuak ematean dauden aldeak, izan ere, zenbaitetan zerbitzuak zuzenean ematen baitira udal administrazioetik bertatik, eta beste zenbaitetan, erakunde autonomo, merkataritza sozietate publikoen bidez edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo merkataritzako beste sozietate batzuen bidez. Ez da alde handirik ikusten, inbertsioetarako ahaleginean izan ezik, Bizkaia eta EAEko udalen batez bestekoa bikoizten baitu; honek zorpetzea handiagotzea ekarri du eta 2008ko ekitaldian, Lurraldeko eta EAEko batez bestekoak gainditu ditu.

**Ondorioa:** Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa. Gernika-Lumoko Udalak aztergai izan dugun aldian aurrezki garbi positiboa erakutsi du; horrek inbertsio programa apala finantzatzeko bide emango du (2008ko kapitalezko eragiketen kostu garbiaren % 29a). Udalkutxaren murrizketaren eragina ez da 2008ko kontuetan jasotzen eta honenbestez, hori aintzat hartuko bagenu, ratioa nabarmen urrituko litzateke, Diruzaintza Geldikina bezalaxe. Nolanahi dela ere, udalak ez du zorpetze maila handirik.

2008ko uztailaren 16ko Osoko bilkurak 4 urtetarako Plan Ekonomiko Finantzarioa onetsi zuen; planak inbertsioak mugatzea aurreikusten du, udalerriko gune jakin batzuk hobetzeko hainbat ekintza orokorretara mugatuz eta zenbait funtzionamendu gastu jakin murrizteko ahalegina eginez.

2009ko ekitaldiko likidaziotik eskuratutako datuen arabera, aurrezki garbia (1.543 mila euro) murriztu egin da 2008ko ekitaldiarekiko (2.047 mila euro); hala eta guztiz ere, behar hainbatekoa izan da kapitalezko eragiketen emaitza finantzatzeko, behera egin baitu inbertsioen exekuzio mailak eta kanpoko finantzaketatik eratorritako diru-baliabide garrantzitsuak eskuratu baitira, berriz ere zorpetzera jo beharrik izan gabe. Etorkizunean, aztertu ditugun magnitudeen bilakaera aintzat hartuta, aurreikusgarria dena, udalak inbertsioak egiteko duen gaitasuna aparteko baliabideak eskuratzeari meneratua dago.



## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

2008-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Mila euro

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUBIDE.	KOB.R.		%
	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
1.- Zerga zuzenak .....	A.3	4.163	-	4.163	3.833	3.359	474	92
2.- Zeharkako zergak .....	A.3	750	-	750	266	239	27	35
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.699	-	1.699	1.597	1.411	186	94
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4	11.926	14	11.940	11.838	11.722	116	99
5.- Ondare sarrerak .....		79	-	79	305	305	-	386
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....	A.5	6.478	-	6.478	4.173	1.203	2.970	64
7.- Kapitalezko transferentziak .....	A.4	665	551	1.216	731	386	345	60
Aktibo finantzarioak .....		30	7.151	7.181	7	3	4	(*) 24
9.- Finantza pasiboak .....	A.10	-	3.500	3.500	3.500	3.500	-	100
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>25.790</b>	<b>11.216</b>	<b>37.006</b>	<b>26.250</b>	<b>22.128</b>	<b>4.122</b>	<b>(*) 88</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzeko Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

#### GASTUAK

1.- Langileria gastuak .....	A.6	4.101	10	4.111	3.899	3.808	91	95
2.- Ondasun arrunten erosketak eta zerb. ....	A.7	6.125	404	6.529	6.156	5.502	654	94
3.- Finantza gastuak .....	A.10	98	38	136	125	125	-	92
4.- Transferentzia arruntak .....	A.8	5.385	258	5.643	5.345	4.226	1.119	95
6.- Inbertsio errealak .....	A.9	9.712	10.578	20.290	11.976	11.023	953	59
8.- Aktibo finantzarioak .....		102	(72)	30	7	7	-	24
9.- Finantza pasiboak .....	A.10	267	-	267	267	267	-	100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>25.790</b>	<b>11.216</b>	<b>37.006</b>	<b>27.775</b>	<b>24.958</b>	<b>2.817</b>	<b>75</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>(1.525)</b>			

#### AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	HASIER.	KOB.R./		AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak .....	6.293	300	4.055	1.938
Hartzekodunak .....	3.263	-	2.882	381

#### AURREKONTU ITXIEN EMAITZA

(300)

#### AURREKONTUAREN EMAITZA

Mila euro

Eskubide kitatuak .....	26.250
Obligazio aitortuak .....	(27.775)
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETA AURREKONTUZKOEN EMAITZA</b>	<b>(1.525)</b>
<b>AURREKO EKITALD. KITATUTAKO AURREKONTU ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(300)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(1.825)</b>
Finantziario-desbideraketak .....	(60)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak .....	4.799
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>2.914</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZAKO GELDIKINA	Mila euro
Diruzaintza geldikina 08.1.1ean .....	7.301
Aurrekontuaren emaitza .....	(1.825)
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldatetak .....	607
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 08.12.31-N</b>	<b>6.083</b>
Diruzaintza (A.13) .....	4.571
Aurrekontuko zordunak (A.11) .....	6.060
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.12) .....	578
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(3.198)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.12).....	(487)
Kaudimengabeziatarako hornidurak (A.11) .....	(1.441)
<b>DIRUZAINZTA GELDIKINA 08.12.31-N</b>	<b>6.083</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	(12)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA</b>	<b>6.071</b>
<b>08.12.31-N ZORPETZEA (A.10)</b>	<b>4.972</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2008 ETA 2007-KO ABENDUAREN 31-N							Mila euro	
AKTIBOA	ERANSKINA	08 urtea	07 URTEA	PASIBOA	ERANSKINA	08 urtea	07 urtea	
<b>IBILGETUA</b>	<b>A.9</b>	<b>103.608</b>	<b>91.632</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>		<b>104.719</b>	<b>97.194</b>	
Erabilera orokorrekoa.....		47.483	36.717	Ondarea .....		36.736	36.736	
Ibilgetu ezmateriala.....		2.002	1.756	Atxikitako ondarea.....		(2.124)	(2.124)	
Ibilgetu materiala .....		52.266	51.302	Aurreko ekitaldietako emaitzak....		62.582	50.400	
Ibilgetu finantzarioa .....		1.857	1.857	Galerak eta Irabaziak .....		7.525	12.182	
				<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>		<b>4.705</b>	<b>1.472</b>	
				Finantzetx. maileguak epe luzera .	A.10	4.705	1.472	
<b>ZORDUNAK</b>		<b>5.165</b>	<b>4.783</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>		<b>3.952</b>	<b>4.166</b>	
Aurrekontuzkoak.....	A.11	6.060	6.293	Aurrekontuzkoak .....		3.198	3.263	
Aurrekontuz kanpokoak .....	A.12	546	538	BEZarengatiko hartzek. ....	A.12	60	213	
Kaudimengab. zuzkid. ....	A.11	(1.441)	(2.048)	Entitate publiko hartzekodunak ...	A.12	206	162	
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>4.603</b>	<b>6.417</b>	Finantzetx. maileg. epe lab.....	A.10	267	267	
Aldi bateko finantza inberts. .	A.12	32	30	Bermeak eta gordailuak .....	A.12	221	261	
Diruzaintza .....	A.13	4.571	6.387					
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>113.376</b>	<b>102.832</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>113.376</b>	<b>102.832</b>	

2008 ETA 2007-KO EKITALDIEN GALERA-IRABAZIEN KONTUA							Mila euro	
GASTUAK		08 urtea	07 urtea	DIRU-SARRERAK		08 urtea	07 urtea	
Langileen gastuak .....		4.042	3.568	Negozio zifratik zenbateko garbia.....		1.193	1.654	
Kaudimengab. zuzkid. aldak. ....		(607)	(227)	Zerga zuzenak .....		3.833	4.014	
Kanpoko zerbitzuak .....		5.973	6.527	Zeharkako zergak .....		266	1.174	
Tributuak .....		40	33	Jasotako transf. eta diru-lag. ....		12.569	12.425	
Kanpoko zerbitzuak .....		5.345	4.781	Kudeaketa arrunteko bestel. sarrerak...		2.792	3.591	
<b>USTIAKETA MOZKINA</b>		<b>5.860</b>	<b>8.176</b>					
<b>FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK</b>		<b>114</b>	<b>106</b>	<b>AURREKO EKITALDIETAKO GALERAK</b>		<b>300</b>	<b>414</b>	
<b>APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK</b>		<b>1.851</b>	<b>4.314</b>					
<b>EKITALDIKO MOZKINA</b>		<b>7.525</b>	<b>12.182</b>					



## V.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

2008-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Mila euro

AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	KULTUR ETXEA	EUSKALTEGIA	EPZ	KIROLAK
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	298	67	23	487
4.- Transferentzia arruntak.....	1.896	379	677	1.557
5.- Ondare sarrerak.....	17	2	8	10
8.- Aktibo finantzarioak .....	-	6	3	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.211</b>	<b>454</b>	<b>711</b>	<b>2.054</b>

2008-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Mila euro

